



Eskola Kirola – 2017-2018rako lehiaketa araudia

IGERIKETA SINKRONIZATUA

1. PARTE HARTZAILEAK

Arabako Lurralde Historikoko igeriketa sinkronizatuko igerilariek parte hartu ahal izango dute, Eskola Kirola arautzen duen Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren uztailaren 1eko 12/2008 Dekretuak zehaztutako adina badute eta 2017-2018 denboraldirako dagokion eskola lizentzia badute. Txapelketa honetan Arabako Eskola Kirola arautzen duen 152/2015 Foru Aginduak xedatutako mailan parte hartuko dute.

2. LEHIAKETAREN EGUTEGIA

2.1. Eskola txapelketa honek bederatzi jardunaldi izango ditu, bakoitza hiru ordukoa, gutxi gorabehera.

2.2. Jardunaldiak honela banatuko dira:

- 4 jardunaldi figuren atalekoak
- 5 jardunaldi figura eta errutinen atalekoak
- Gasteiz Hiriko Open 1

2.3. Klubek lehiaketaren lekua eta ordutegia adostu, eta Arabako Igeriketa Federazioari bidaliko diote. Ondoren, federazioak ordutegia eta lekua berretsi, eta talde parte hartzaileei jakinaraziko die.

3. LEHIAKETA SISTEMA

3.1. Figuren eta errutinen lehiaketa sistema EIFaren 2017/21 igeriketa sinkronizatuaren Arautegi Orokorrean ezarritakoa izango da.

3.2. Errutina ataleko errutinek taula honetan ezarritako bi denboren arteko iraupena izan beharko dute:

	Taldea	Combo
Benjamin aurrekoak	1'50" - 2'00"	2'00" - 2'30"
Kimuak	3'00"	3'00"
Haurrak	3'30"	3'00" – 3'30"
Gazteak	4'00"	4'00"



Arabako Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Álava

www.araba.eus

3.3. Klubek jardunaldietan parte hartuko dutenen zerrenda Arabako Igeriketa Federazioari bidali beharko diote, gutxienez jardunaldiaren eguna baino aste bat lehenago.

3.4. Jardunaldietako parte hartzaileen hurrenkera zozketa bidez erabakiko da. Zozketa jardunaldi eguna baino bi egun lehenago egingo da, jendaurrean. Hurrenkera hori epaileei jakinarazi beharko zaie.

3.5. Errutina lehiaketan Talde eran (4-6 lehiatzaile) edo Combo eran (6-12 lehiatzaile) parte hartu ahal izango dute.

3.6. Igerilari bakoitzak maila bateko talde eta combo batean parte hartu ahal izango du eta errutinetako maila berean figuren atalean parte hartu beharko du.

4. LEHIAKETA MOTA

Eskola kirolean ari garenez, lehiaketak txapelketa formatuko erakustaldiak izango dira, arbitroekin, igerilariak lurraldetik ateratzen direnerako prestatzen joateko.

5. EPAIMAHAIA

Epaimahaia EIFaren 2017/21 igeriketa sinkronizatuaren Arautegi Orokorrean ezarritakoaren arabera osatuko da. Epaimahaikideak Euskadiko Igeriketa Federazioaren arbitro elkargokoak izan beharko dira.

6. ARAUTEGIA

Araudi honetan arautzen ez dena EIFaren 2017/21 igeriketa sinkronizatuaren Arautegi Orokorrean ezarritakoaren arabera arautuko da.